


ANAITASUNA

230. zenb.

1972.eko Martxoaren 15ekoa

Jardin Txikerra, 1. BILBAO-12
Tel. 43 18 37



1971. URTEKO EUSKARAZKO LIBURUAK

JUAN SAN MARTIN

Euskarazko liburuak, 1963.ean lehen aldiz lortu zen hilabetez argitaratzea. Zenbaki hau 1966.ean hirura heldu zen eta 1970.ean laura. Beraz, azken bi urte hauetan, batez beste, asteroko liburu batera heltzen da euskarazko liburuen produzioa. 1970.ean 56 liburu argitaratu ziren, eta 1971.ean beste hainbeste.

1970.eko liburuen lista ANAITASUNAren 204. zenbakian eman genuen (1971.eko urtarrilaren* 30ekoan). Urtero gertatzen zaikun bezala, beti gelditzen zaizkigu aipatzeke* zenbait titulu, aurreko urtean berandu zabaldu zirenak, hain zuzen; eta 1970.eko zerrenda hari beste titulu hauk* gaineratu behar dizkiogu, 56 liburuen lista osoa ager dadin:

Arrotza, Albert Camus (J. M. Agirrek euskaratua). Irakur sail. Donostia.

Bertso mordoxka, Manuel Lasarte. Auspoa. Tolosa.

Goiznabar (Olerki bilduma, 1929-1950), Aita Onaindia. Bilbao.

Gure Lur osoaren Lutelestia, E. J. Werner (N. Etxanizek itzulia). «Margo Ederdun Enziklopedia». Timun Mas, S. A. Barcelona.

Harrizko herri hau, Gabriel Aresti. Lur. Donostia.

Lurraren kondaira, Salvador Garmendia. Irakur sail. Donostia.

«Semeno de Lazkano», A. Arrinda Albisu. «Anes Lazkanko». Zarautz.

Iragan* den urtean, 1971.ean, editorial berri bat agertu zaiku, «Etor» izenez. Bestalde, Ediciones Gaisa, S. L.

4. orrialdean jarraitzen da

Euskal estudiantearen eginkizuna gaur

Sarritan entzuten dut, Euskal Herriaren indarberri-
tzean estudiantek ezer guti egiten dutela, eta hobe li-
tzatekeela, gure herriaren funtsezko* iraultzan,* estu-
diantek alde batera uztea. Dirudienez, euskal estudian-
teok ezin genezake, estudiante gisa,* ezer interesgarri-
rik egin herriaren alde: eguneroko esperientziak horren-
besteraino egiaztu bide* du gure ahulezia.*

Nik neuk, estudiante naizenez gero, neure herriarekin
estudiante bezala konprometaturik* sentitzen dut neure
burua; eta, ene ustez, ikaslegoak* —euskal gizarteare-
kiko duen erresponzabilitateaz jabetuz gero— zeregin
haundia du gure herriaren nortasungintzan. Eta erres-
ponzabilitate honen kontzientzia sortzea ez dut hain in-
posible ikusten. Horrexegatik egiten dut gure estudiante
egoeraren azterketa xume* hau, estudiantegoaren kon-
tzientzia batzeko eta indartzeko lagun eta akuilu izan
dadin.

ESTUDIANTEK GIZARTEAN DUEN EGITEKOA

Estudiantea, beste edozein pertsona bezala, gizarteak
bere aurrerabidean dituen eginkizunetan konprometatu-
rik* dago. Bestalde, gizarteak bere giza mailetan ba du
diferentziatze eta berezitasunik, denak elkarren osagarri,
nahiz eta desberdin. Giza maila hoietako batetan ipin de-
zakegu ikaslegoa.

Estudiantea, ikaslana bere berezitasun bezala hartu-
rik, bere burua prestatzen ari da, herriak dituen proble-
mak aztertzeko eta herri hori aurrerabidean jartzeko ka-
paz egunen batean izan dadin. Haun honela izanik,
estudiantea ezin daiteke zokoratuta gelditi, herriak bere
nortasungintzan eta bere giza moldean eraberritzean
duen dinamikan.

EUSKAL ESTUDIANTEA EUSKAL HERRIAN

Edozein estudiantek gizartearekiko duen egitekoa
Euskal Herriko estudianteari aplikatuz gero, hau nabari-
tzen* da: euskal estudiantek geure herriarekiko dugun
erantzunkizunaren kontzientziatze baten behar larria du-
gula, eta guztiz argi konprenitu behar dugula, Euskal He-
rriak duen nortasun eskubidea hizkuntza eta etnia propio
baten jabe izatean datzala.* Euskal kontzientzia honek
euskaldun izatearen giza dohain* edo galezineko zen-
zait* berezitasunen aitortze eta baiezte eskatzen du,
hor baitago gure herri izatearen arrazoia. Ez da erraz,
euskaldun izatea zertan datzan zehazki mugatzea. Dena
den, ezin uka, hizkuntza bat dugula eta arbasoengandik
herri kontzientzia bat jaso* dugula: odolez, ohituraz eta
historiaz egindako kontzientzia.

Gure gizartea euskal gizartea da lehenik, eta gure
gizona euskaldun. Estudiantek, ezin gantz* dezakegu
inola ere errealitate hau: gure ikasketen zentzu osoa
euskaldun gizon honengan dagoela.

ESTUDIANTEA KULTURAN ETA POLITIKAN

Euskal Herriak gaur planteaturik daduzkan arazo na-
gusietarik bi, hauk* dirateke: kulturagintza eta politikagin-
tza.

Euskal Herriaren kultur egoera larria, denoi zaiku so-
bera* ezagun. Kultura, lehen lehenik, gizonak bere ingu-
ruko beharrei historian zehar ematen dien erantzuna da,
hots,* erantzun horrek eskatzen duen giza konportamen-

duen azalpen eta porzesoen bilduma.* Eta era honetan
euskal gizonak ba du bere kultura.

Gaur guri alor* zenbaitetan* tokatzen zaikuna zera
da, kultur kontenidu hoik* fijatu eta tinkatu, betiko gal ez
daitezen. Kultur kontenidu hoien fijatze, interpretatze
eta desarroilatze lanetarako jendea behar da, jende gai-
tua eta lanerako gogoia duena.

Euskal estudiantek erabat* konprometaturik egon
behar dugu lan izugarri honetan, gogoan izanik, eginkizun
hau, geuk izan ezik, ez duela beste inork egingo.

Politikagintza ezin dugu azterkatu hemen; baina gar-
bi dago, eginbehar hori, hain garrantzitsua izanik, gizarte
osoaren gain bezala gure gain ere erortzen* dela. Hala
ere, puntu honetan ezin isil dezakegu, euskal sozialismo
baten sorketa derrigorrezko ikusten dugula.

EUSKAL ESTUDIANTEAREN EKINTZA POSIBILITATEAK

Lehenik, euskal estudiantek, herriaren alde zerbait
egiteko gaitua egon nahi badu, haren hizkuntza, historia
eta literaturaren ezagupena beharrezko du, bai eta, kul-
turaz landa,* gure gizarte maila guztietan egiten dena-
rena ere.

Gaur euskal estudiantearen posibilitateak asko direla
esan beharrik ez dago. Hona hemen hiru posibilitate,
kulturagintzari bakarrik lotuak:

— euskal estudiantek hementxe, Euskal Herrian, behar
luke aplikatu bere ikasketen espezializazioa. Hauxe
da haren ekintzarik bereziena. Bereziena diot, hark
bakarrik egin dezakeelako. Pentsa dezagun, zenbate-
rainoko langaia eman diezakeen gure herriak linguis-
tikari, historia, ekonomia, soziologia, sikologia, etno-
logia eta beste ikasketei, eta zenbateraino beharrez-
ko ditugun gizon espezializatuak zientzia hoietan.

— estudiantearen egitekoa izan daiteke ere herriaren
egoera ausnartzea eta salatzea, kritikalarien falta
ikusiz gero. Zeregin honetarako estudiantek ba ditu
informazio bideak —ikasketak emanak gehienbat—
eta astia ere bai, beste gizarte mailek baino gehiago.

— beste posibilitate oso zabal bat ere ba dugu estudian-
teok, herriaren kultur egoera hain behartsu dagoe-
larik: ikasten ari garen gaien zabaltzea, dibulгатzea.
Hemen aipa genitzake alfabetatze kanpainak, euskal
maisuen prestaketa, herrietan barrena ikastaldeen
sortzea, eta abar.

Nire lan honek manifestu baten antz zerbait ba duela
dirudi («euskal estudiantek, elkar gaitzen!»), estudian-
teok guztia konpon dezakegulakoan. Dena den, geure he-
rrigintzan estudiantek zeregina franko ba dugula azaldu
nahi izan dut, horretarako egiazko posibilitateak ditugu-
la, eta herria benetan horren eske dagoela.

J. ZULAIKA

daduzka, **daukaz**, dauzka
dezagun, **daigun**
dezake, **daike**
dezakegu, **daikegu**
die, **dautse**

diezakee, **deiskioe**, dezaieke
genezake, **geinke**
genitzake, **geinkez**
zaiku, **jaku**, zaigu

Fedea eta ideologia (1)

Sinestea, gure biziaren azken hitza eta erabateko* apostua da. Beraz, kristau fedea, Kristogan beragan biziaren esannahirik sakonena aurkitzea izango da, ANAITASUNAREN 219. zenbakian esaten genuenez.

Definizio hau, Tillich teologoak emandakoa da. Haren «Fedearen Dinamika» liburutik hartua dugu. Beste liburu batzuetan ere ideia berari ekiten dio Tillich jaunak, behin eta berriz.

Ingelesean fedea «ultimate concerne» dela dio, hau da, «ukitzen gaituen azken axola». Eta alemanez, «was uns unbedingt angeht», hots,* «erabat* kezkarazten gaituen zer bait».

Baina, Tillichen definizio hau aurrerago eramaten ez badugu, oker batean eror* gaitzke, fedea zer bait subjektibo besterik ez dela susmatuz.

Fedea ez da bakarrik norbaiten barneko gertaera edo jarrera,* zer bait objektibo baizik, errealitateari benetan heltzen diona. Are* gehiago, fedea, pertsonaren kontzientzian badago ere, gizarteko gertaera bat da, beste aldetik. Fededuna, aitortle eta burrukalari bat da.

Izan ere, Eliza, fede komunitate bat dugu; eta Kristoren sinestean, Elizan daduka bere agerpenik handiena.

Baina fedearen gizartekotasun honetatik dator, hain zuzen ere, istilurik nagusia. Gizon bakoitzaren barne munitan baino ez balego, fedea ez luke batere problemarik sortuko.

Ordea, fedearen gizarteko problemak hamaika aurpegi du, zein baino zein zailagoa.

Erraza da, adibidez, fedea kristau bakoitzaren Kristorekin berarekin aurkitze esistentzial bat dela esatea. Baina, orduan, sinestun bakoitzaren fedea nola egokitzen da beste sinestunen fedearekin?

Kristau bakoitzarengan obratzen den Kristoren aurkitze horrek esannahi berbera izanen ote du? Kredoan esaten dugunean, hitzak modu berberean ulertzen ditugu kristau guztiok?

Ez dut uste. Bakoitzak, bere kultura eta bere barne giroaren arauera,* irudipen berezi bat moldatzen du bere baitan. Bakoitzarentzat fede irudipenak desberdinak dira, nahi eta nahiez, eta erlijio esperientziak ere. Kontzientzi pluralismo hau ez du inork ukatuko.

Bestalde, sinestuna sinesgabekoen artean bizi da, gaurko egunotan batez ere, aintzinako «gizarte kristaua» ez baitago gehiago. Kristau fedea nola egokituko da kultura eta zibilizazio mugimendurekin? Zientzia, politika eta ideologiaren aldakuntzak nola ikusiko ditu fededunak? Mugimendu horretatik kanpo geldituko ote da? Edo Elizaren irakaskintza eta aginduen zain egongo?

Sail honetan arrisku handia dugu, fedea ideologia bat bezala erabiltzea, alegia.* Zeren* fedea ez baita, inolaz ere, kristau ideologia bat. Sinestunak ez dira «kristianista» partidu baten osatzaileak!

Gai hau —fede/ideologia— garbitzeko, beharrezkoa dugu lehenik, galdera bat geure buruei egitea. Hauxe da: ideologia hitzari zer esannahi ezarri diogu artikulu honetan?

Ideologia hitzak esannahi asko izan dezake, eta izan du, XIX eta XX. mendeetan.* Hemen, Louis Althusser-ek emandakoa erabiliko dugu, Marxenarekin oso loturik dagoena: «Irupiden, mito, ideia, kontzeptu, balore eta errepresentazioen sistema, gizarte determinatu batean funtzionatzen duena».

Kristau naizen aldetik, nik ez dut batere eragozpenik, definizio hau onartzeko. Gizarte guztiek mentalitate bat, filosofia bat, kultura eta zibilizazio bat sortzen dute nahi eta nahiez. Nork ukatuko du, morala eta erlijioa oso loturik daudela ideologiarekin?

Baina marxistek, edo marxista gehienek behintzat, erlijioa eta morala ideologia burgesaren zati bat direla diote, besterik ez. Haietzat, klase gizarte batean, ideologia, klase dominantearen sorkari* bat da. Gizarte burgesak sortutako ideologiak, estali egiten ditu egiazko problemak, produzio harremanetan daudenak. Erlijioa eta fedea, alde honetatik, alienatortzat hartzen dituzte marxistek.

Gure hemengo problema ez da marxismoa eztabaidatzea; eta ez gara orain honelako sasitarrean sartuko. Baina, interpretazio hori alde batera utzita, ez dugu batere eragozpenik, berriz ere diogu, Althusser-en definizioa onarturik, «fedea eta ideologia» gaia aztertzeko.

Gizarte baten ideologiak eta kristau fedea ba ote dute zerikusirik? Esan daiteke, Elizak berak, gizarte denez gero, ideologia bat duela? Eta, horrela baldin bada, ideologia horrek nola jokatzen du fedearen aldetik?

Beste batzuen artean, hauk* dira hurrengo artikulu batean erabiliko ditugun problemak.

KARLOS SANTAMARIA ANSA

daduka, **dauka**
daude, **dagoz**
dezake, **daike**

dio, **dautso**
diogu, **dautsagu**; dinogu
diote, **dinoe**

Frantzisko Elgezabal, parroko berria

Frantzisko Elgezabal jauna izendatu berri dabe, joan dan otsailean,* Deustuko Ibarrekolandan dagoen elizako parroko.

Bilboko euskarazko mezak

Aurreko zenbakiren batean esan genduan, Bilbon larunbat* arratsaldeetan bost meza esaten direla euskaraz. Baina, konturatu barik, huts bat egin genduan. Ez dira bost meza, sei baino. Seigarren hau Begoñazpin ematen da, arratsaldeko seirak eta erdietan.

ANAITASUNA Bizkaia

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkola eta banakolaren buru: Josu Torre.

Bulegoak: Jardin Txikerra 1, Bilbao-12.

Inprimatzaile: AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

Irarle: RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

XX. urtea.

D.L.: BI-1.753 - 1967.

1971. urteko euskarazko liburuak

delakoak euskarazko sail bati ekin dio, Walt Disney-ren kolezioak argitaratuz. Baina ba dirudi, Timun Mas, S.A.k bere «Margo Ederdun Enziklopedia» bukatutzat eman duela. Beste batzuek argitalpenak urritu dituzte, eta Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, S.A.k ale bat bakarrik ere ez du agertu euskarazkorik. Dena dela, 1971. urteak 1970.ean hartu zen goimailari eutsi dio, 56 liburu argitaratzean. Hona hemen liburuen zerrenda:

1971

- Ajea du Urturik**, Anjel Lertxundi. Etor. Bilbao.
- Amazonetako indioak**, Lur Editoriala. Donostia.
- Animalien bizitza izkutua**, Guiuseppe Zanini (Jokin Apalategik euskaratua). Col. Walt Disney, Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Antxitxarburu-ko buhamiak**, Jean Barbier. Collection Ikas. Baiona.
- Atsotitzak eta Neurtitzak**, Oihernarte. Irakur sail. Donostia.
- Bai mundu berria**, Aldous Huxley (X. Amurizak euskaratua). Lur. Donostia.
- Balearen arrantza**, Lur Editoriala. Donostia.
- Breve guía montañera - Menditar artezari laburra**, Josu Altuna «Basajaun». Bilbao.
- Cuentos del Bidasoa - Bidasoako kondairak**, Luis de Urantz (Hernandorena eta Irigarayk euskaratua). Donostia.
- Egaztien mundua**, J. Dorst (J. M. Aranaldek euskaratua). «Margo Ederdun Enziklopedia». Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Ekai-arauketa dialektikorrari buruz**, Iulen Madariaga. Herbestean.
- Eskaldunac**, J. M. Hiribarren. (Bigarren argitalpena). Auñamendi. Donostia.
- Euskal aditza. Batua? ...baturakoa**, Patxi Altuna. Etor. Bilbao.
- Euskal erria eta ikastola**, Jose Lasa Apalategi. Donostia.
- Euskal Herriaren Historia**, Federiko Zabala («Jakín» taldeak euskaratua, J. Intxaustiren zuzendaritzapean). Jakín eta Etor. Bilbao.
- Euskalerrriaren Yakintza** (IV.tomoaren bigarren argitalpena), R. M. Azkue. Espasa-Galpe, S. A. Madrid.
- Euskal Herriko Ekonomia (1955-1967)**, Gurutz Ansola. Etor. Bilbao.
- Euskal Herriko Historiaren laburpena**, F. Zabala eta J. A. Iglesias. Donostia.
- Euskal idazleak - Juan de Tartas**, J. A. Etxebarria. Zarautz.
- Euskal Kulturaren Historia**, Lasálletarrak. Bilbao.
- Euskal Literaturaren Historia**, Ibon Sarasola. Lur. Donostia.
- Euskara gaur**, Gaur, S.C.I. Lur. Donostia.
- Hegatsez** (Hitz-lauzko bilduma), S. Basauri eta J. San Martín. «Kuliska Sorta». Itxaropena. Zarautz.
- Hitz berdeak**, Joxe Azurmendi. Editorial Franciscana Aránzazu. Oñate.
- Hizkuntza, etnia eta marxismoa**, Joxe Azurmendi. Euskal Elkargoa. Baiona.
- Industriaketa aundiak**, Espezialista askoren artean egina L. Dorronsorok euskaratua). «Margo Ederdun Enziklopedia». Timun Mas, S. A. Barcelona.
- Isolottoko katekima**. Etor. Bilbao.
- Itsasoko gauza harrigarriak**, Frank de Graaf (Gexan Lantzirik euskaratua). Col. Walt Disney. Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Izatearen malura**, Xabier Azurmendi. Etor. Bilbao.
- Jainkoaren billa**, Nikolas Ormaetxea «Orixe». Etor. Bilbao.
- Jendeak eta bizilekuak**, Jane Werner Watson (Larresorok euskaratua). Col. Walt Disney. Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Kaniko eta Beltxitina**, Jakes Oihernarte. Lur. Donostia.
- Kristoren Eliza**, Aita J. A. Goiria. Bilbao.
- Kultura eta Fedea**, P. Agirrebalzategi, P. M. Zabaleta, A. Sagarna, J. M. Torrealdy, I. Bereziartua, J. M. Díez-Alegria. Jakín. Oñati.
- Lan alokatua eta kapitala. Alokairua, prezioa eta irabazia**, Karl Marx (X. Kintanak euskaratua). Lur. Donostia.
- Langileria historian zehar**, Mikel Ugalde. Etor. Bilbao.
- Lau gartzelak**, Nazim Hikmet (G. Arestik euskaratua). Lur. Donostia.
- Larre gorrian**, Obras Musicales del Padre Donostia. Archivo P. Donostia. Lekaroz.
- Lehen gizarteak**, Benantxio Otaegi. Etor. Bilbao.
- Lehen urratsak. Euskaldunen alfabetatzea - 1.** Lur. Donostia.
- Linguistika orain arte**, Xabier Kintana. Lur. Donostia.
- Marxen marxismoa**, Gotzon M. Garate. Etor. Bilbao.
- Marx eta erlijioa**, Imanol Pagola. Irakur sail. Donostia.
- Mendi-gañetik**, José Inazio Etxeberria. Auspoa. Tolosa.
- Mintzaira, aurpegia: Gizon!**, Jean Hiriart-Urruty. Jakín. Oñati.
- Oihaneko gauza harrigarriak**, Georges Sherman (F. Mendizabalek euskaratua). Col. Walt Disney. Ediciones Gaisa, S. L. Valencia-Donostia.
- Pastor Izuela (1780-1837). - Ezkioko ta Segurako itxuak**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- Perretxikoak - Setas**, Iñaki Linazasoro. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak. Zarautz-Donostia.
- Poema bilduma**, Mikel Lasa eta Amaia Lasa, Irakur sail. Donostia.
- Rikardo Arregi**, R. Arregi. Alfabetatze batzordea, Joseba Arregi, Joan M.^a Torrealdy. Jakín sorta. Arantzazu. Oñati.
- Seksu-erabidea**, Sergio Bigatello (J. Gaztañaga eta J. Goikoetxeak euskaratua). Etor. Bilbao.
- Sòzialismoaren frogantzak**, Maurice Dobb (A. Urretavizcayak itzulia). Lur. Donostia.
- Txirritaren bertsoak** (I eta II tomoak), A. Zavala. Auspoa. Tolosa.
- «Umeen deia»**, Aita Felipe Murietaren bilduma. Iruña.
- Xabierto**, López-Mendizabal (A. Onaindiak bizkaieratua). Amorebieta.
- Zepai bertsolaria**, A. Zavala. Auspoa. Tolosa.

Liburu berriak

Arestiren liburuxka berria Axular idazleari buruz

«Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra Gero» izenburuarekin argitara eman dau Gabriel Arestik artikulu bat, Iruineko «Fontes Linguae Vasconum eta Documenta» aldizkarian. Artikulu hori «separata» batean publikatu dau, aipatu* aldizkaria argitaratzen dauan «Aranzadi» editorial etxeak. Separata honen 25 orrialdeetan Arestik aditzera ematen dauan bezala, Axularrek 682 aditz forma diferente erabiltzen ditu.

«Kandido», Voltaire-Sarasola, LUR

Azken unada* honetan liburu tekniko nahiko jaso ditugularik, nobelagintza alde batera utzita egoela uste genduan. Voltaire filosofoaren «Kandido» honekin, berriz agertzen jaku nobela saila, itzulpen bat baino ez bada ere. Itzulpena Ibon Sarasolak egin dau, eta hizaurrean berak dinoanez, «hitzez hitz euskaratu dut, eta itzulpen mekaniko bat ez egiten ahalegindu banazi ere, 'orijinala hobetzeko' tentazioan erortzetik* ahal bezainbat* begiratu naiz. Hau da, hain zuzen, ezagutzen ditudan gaztelaniazko hiru itzulpenek ene ustez duten hutsik larriena». Nobela hau gertatzen dan tokia eta aisia gaurkoa izan ez arren, interesgarria da beti klasiko haundi honen lanak irakurtzea. Eskatzekotan: LUR editoriala, Villa Zutik, Paseo Arbola, San Sebastián.

«Hizkuntza eta Pentsaera», Larresoro, ETOR

Berriro gure artean Larresororen luma zorrotz eta langilearen lana. Azken liburu honetan jarraiko gai honek azaltzen ditu: *Euskara estrukturalismo klasikoaren argitan, Whorf-en erlatibitate oinarria, Levi Strauss etnologoaren eritzi nagusiak, Lacan psikanalista bide beretik, Afasiaren erakaspenak eta Estrukturalismoaz zenbait hitz.* Nahiz eta filosofiko samar izan, 141 orrialdeko liburu interesgarria. Eskatzekotan: ETOR, Apartado 73, Bilbao.

Espainiako bankuetxerik dirudunenak

Efektorik gehien jaso* izan daben Espainiako bost bankuetxeak, jarraiko honeexek izan dira, joan dan abenduaren 31n:

Banco Español de Crédito	...	197.132	milioi	pezeta
Banco Hispano Americano	...	180.462	»	»
Banco Central	...	168.320	»	»
Banco de Bilbao	...	145.642	»	»
Banco de Vizcaya	...	107.246	»	»

Xavier Diarce, «Iratzeder», Belokeko abade berria

Xavier Diarce, «Iratzeder», izendatu berri izan da Belokeko beneditanoen abade. Iratzeder Donibane Lohitzunen jaio zan, orain dala 51 urte. Euskaltzain dan beneditano honek, euskal aldizkaririk gehienetarik idatzi izan dau, zenbait* liburuxka argitaratu ditu, eta Euskal Herriko poeta hoberenetarikoa da.

Haren pertsonalitatea eta kristautasuna azaltzeko, haren bizitzako gertakari bat dakargu jendearen gogotara: Behin, hegoaldeko hiru mutil heldu ziren Belokeko monasteriora, gordeleku eske. Aita Iratzederren lagun egin ziren, eta, ilunabar batez, berarekin ibilaldi bat egiteko eskatu eutsen harek. Kanposantura eroan zituan, gurutze bat atera eban kolkotik, eta esan eutsen: «Zuek Kristo barik zabilte, eta ez zoaze bide zuzenetik. Gazte denboran, euskal gudarien kapitain izateko amets egin neban. Baina, Kristoren kapitain izanez, Euskal Herriaren alde gehiago egingo nebala konturatu nintzen. Kristo da, izan ere, gure benetako kapitain eta salbatzaile».



EUSKALDUNA NAIZ

Euskalduna naiz ta euskera daroat nere bihotzean.
Euskera daukat lagun beti mintzatzean Euskera Jaunarekin nere otoitzetan.
Euskera ta ni, ni ta euskera, hor izate bi batean.
Eta ez naiz lotsatzen euskeraz egiten.
Zelan lotsatu nere amagaz ibiltzen?
Ez al dozue zuek amarik maitatzen?
Zatoze neugaz amarengana danok euskeraz kantatzen.

JON ENBEITA: Bertsolari eta abeslari

Diska eskatzekotan: Cinsa-Av. del Ejercito, 18, 3.º-Bilbao-14

EMOIDAZU ESKUA

Emoidazu eskua, emoidazu gazte. Bizitza latsegia da laguntzarikan gabe.
Emoidazu eskua, emoidazu gazte. Bakardadea uxatzera neugaz etorri zaite.
Zoriona zer den ez dakien geure anaiei laguntzean zoriona aurkituko duzu gazte zeuk ere bihotzean.
Emoidazu eskua, emoidazu gazte. Bizitza ilunegia da maitasunikan gabe.
Emoidazu eskua, emoidazu gazte: gizonak elkartutera neugaz etorri zaite.
Zeuri didarka naukazu nere gitarra lagun. Munduan alaitasuna biok zabaldu daigun.
Gazte zeure bila nabil, arren lagun eidazu: Gizonaren zoriona zeure eskuan daukazu.

DIRUA

Indartsu da ta dirua dauka izena. Bere aurrean auzpeztutzen da gizona.
Ez dago ate itxirik bere aurrean; goiko ta beheko, guztiak, dabilte bere bildurrean.
Dirua, dirua, munduko erreinua. Dirua, dirua, gaurko gizonen jaungoikua.
Gorputzak erosten ditu, anaiak saldu. Dirua daukan gizonak edozer ahal du.
Gorrotok sortzen ditu sendiak ausi. Deabruen diru horrek mundu osoa iruntsi.
Ezin daiegu ukatu bere menpe gaudela, gure bizi osoa diru atzean joakula.

HORRELA DOA MUNDUA

Peru ta Marik ez dabe nahi semeen enberasurik, Praisku ta Lolik ez dabe onartzen seme bako ezkontzarik.
Libre nahi du, eskondu gabe, bizi Patxik plazeretan, Joseba berriz fraile sartu da danok maitatu gaitezan.
Eta horrela doa mundua danetariko gizonekin, eta horrela doa mundua bere akats eta birtutekin.
Karmen negarrez, Maite barreka, Pilik ez daki zer egin; Lanean jator dabil Andoni, Iñaki lo amesekin.
Diru ta fama nahi ditu Kepak ta agintza Joxe Marik; Jonak ez du nahi saltzetan sartu, egia nahi du Luis Marik.
Txantonek baietz, Sabineke ezetz, Agustin bata ez beste. Miren kantari, Mikel dantzari, moskorrik moskor Bixente.
Olatz aurrera, Lurdes atzera, Arantza geldi erdian. Xabier danen kritikalaria Manu danakin bakean.

Helburu hurbila eta azken helburua elkarrekin joan behar

Zientziaren mami eta helburu hurbilak* eta gizonaren azken helburuak elkartzea bekatu astuna da, bizitza departamentutan zatikatu nahi duten zientifikoentzat.

Izan ere, eskola klasikoak beste modutara ohitu gaitu. Filosofiaren eta zientziaren arteko amiltegia* aintzinatik dator. Ongi berezi behar ziren bataren eta bestearen sailak eta betebeharrak. Gizonaren azken helburuen estudioa filosofiari zegokion. Bizitzaren esperientziaren pean sartzan diren datoen estudioa, berriz, zientziari. Filosofiak guztizko autonomia zuen bere sailean, bai eta zientziak ere berean.

Mendebaldeko* pentsakera, Descartes filosofoaz geroztik batez ere, ideia garbi eta mugatuena izan da. Mendebaldeko pentsamoldeak, esistentziaren sakontasun iluna baino izatearen klasifikazio argia maiteago izan du. Hortik sortu dira bi munduak, filosofiarena eta zientziarena. Egiaren kaltetan. Egia errealtatea baita. Eta, errealtatean, filosofiari dagokiona (azken helburuak) eta zientziari dagokiona (esperientziako datuak eta hauen arrazoi hurbilak) batera ematen dira.

Erdibitze horrek ba du ondorio makurrik. Bakoitza bere bidetik doan heinean,* ez filosofiak eta ez zientziak ez dukete eragin iraultzailerik* gizartearen baitan.* Filosofia errealtatetik kanpo mugitzen den zerbait bezala hartzen da. Ameslarien, alferren eta utopisten zeregina da. Ametsaren eta fantasiaren maila horretan, eztenik gabea da, eta ezin diezakeo gaurko gizarte ordenari kalterik egin:

Zientzia, berriz, gizon praktikoaren lana da. «Oraingoari eta hemengoari» ekiten dio. Baina honek ere ezingo du gizarte ordenarik irauli, hurbileko arrazoietan geratzen baita, arrazoiaren azken arrazoiatar jo gabe.

Pentsamolde dualista, zahartu eta loerazle honen kontra gero eta uhin* haundiagoak jaikiaz doaz. Marcuse zaharra dugu korrante honen eragileetako bat: «Zientziak berak egin du posible azken helburuak zientziaren sailera eramatea» (*Dimensio bakarreko gizona*, 261. orr.). Mendez* mende sendotuz etorri zaizkigun eskema klasikoak hankaz gora doaz. Uste izan dugu, gizonaren azken helburuen gorabehera etikaren eta, zenbaitetan, erlijioaren sailekoa bakarrik zela.

Gaur ezin dezakegu ikuspegi hau onar. Etika eta erlijio hutsaren arlotik atera egin behar dugu giza helburuen planteamendua eta zientziaren mailara ere eramán. Gizonaren azken helburuen problema, problema zientifikoa eta, areago,* problema teknikoa da, dio Marcusek. Zientziatik eta metodu zientifikoetatik aparte gelditu beharrean, orain arte metafisikak bere aldetik tratatu dituen gizonaren askatasun problemak zientziaren eskutan erori behar dira. (Honek ez du esan nahi, zientziaren ikuspegi erromantiko batera itzuli behar dugunik).

Honela bakarrik iritxiko* gara, beti batera joan behar zuena bateratzera. Justizia, askatasuna, gizatasuna, bakea eta beste hainbat giza eta gizarte balore ez ditugu lur ideal eta ametsezko batetan landuko. Aitzitik,* gizonaren eguneroko behar konkretuetara lotuko ditugu. Honela, ogiarekin, ardoarekin, autopistekin eta lantegiekin zerikusirik izango du gizonaren azken helburuak edo egiazko askatasunak. Teknikaren fruitu hoietan finkatua joango da askatasungintza.

Baina honek ondorio astun bat dakar eta zera da: Orduan zientzia politika bilakatzen* dela, kontzientzia zientifikoa kontzientzia politikoz janzten dela, eta lan zientifikoa lan politikoz bihurtzen. Orduan zientziak «neutralitate» goxoa galdu du. Orduan zientzia ez da sortzez eta ibiltzez garbia. Eta zientifikoak eskuak zikindu behar hori...!

Bestalde, ez dut uste denbora gehiegirik eman beharrik dagoenik, neutralitaterik ezin daitekeela gorde egiaztatzen. Lehen, nazio neutralak ere ba zirela pentsatzen genuen. Gaur edonork daki, hori kontu hutsa dela. Zientzi, teknika eta kultur sailean ere gauzak berdin gertatzen dira. Ez dago teknika neutralik. Ez dago hizkera, ariketa,* gramatika, hiztegi neutralik.

Marcusek dio: «Sintaxia, gramatika, hiztegia, moralizko eta politikazko ekintza bihurtzen dira» (Opus citatum, 224. orr.). «Gaur eguraldi hotza egiten du», «xoriak kantari dabilta»: esaldi hauek kontenidu moral eta politikoz bat ba dute, testoinguru baten barnean. Ez, noski,* esaten dutenagatik, esan behar eta esan gabe uzten dutenagatik baizik.

Marcusek liburu berean: «Zientzia eta teknologia, beren asmoen kontra eta beren neutralitatearen kulpaz, tresna politikoz bezala maneiatuak izan dira. Metodu gisa zeregin politikoz bat bezala organizatuko balira, ez lukete politikaren menpean jarraituko» (262. orr.).

Beste hitzez: Delako neutralitaterik ez du gorde ahal izan, ez zientziak eta ez teknologiak. Beti politika baten menpeko dira. Finkaturik dagoen politikaren menpeko eta politika honen euskarri.* Hori dela eta, zientzia eta teknika politizatu beharra dago, politikagile izan daitezten, eta ez ezarria dagoenaren morroi. Izan ere, bitatik bat: Zientziak politika *egingo* du, edo bestela politika bat *sufrituko* du.

Euskararen irakaskintzari gagozkolarik, bi helburuok, hurbila eta azkena, batera organizatu behar ditugu. Euskarazko klasearen nahiz euskal alfabetatzaren helburu hurbila, euskara irakastea da. Baina azken helburua gizona askatzea, hori ere. Euskaraz ez dakien edo eta euskaraz irakurtzen eta idazten ez dakien pertsona eta zapaldu bizi dena, bat eta bera da. Nor ez da gizarte esturturen eta psikologi esturturen morroi?

Hori dela eta, pertsona euskara gabea edo erdaldu-na eta pertsona kateatua identitate berdinekoak direlarik, euskararekin batera kateen berri ere eman behar zaio. Gure kateen berri izatea baita askatasunerako lehen urratsa.* Alfabetatzea, euskara irakurtzen eta idazten ikasteko *soilik* izan behar dela esatea, oso jarrera* atzerakoa eta primitiboa dela uste dut. Zientziaren positibismoan erortzen gara hori ere.

Helburuak ongi organizatuz hautsiko du gizonak bere morrointza.

Ondorena garbi dagoela uste dut: Euskararen irakaskintzan —irakaskintzaren gurgilean berean esan nahi dut, horretarako darabilzagun hitz eta esaldietan, tes-toetan, alegia— politikagile ez bagara, politikaren morroi gara. Geure borondatezko morrointzaz, gainera. Eta borondatezko morroia agintariaren kolaboradore dela esan beharrik ote dago?

EUSEBIO OSA

dezakegu, **daikegu**
diezakeo, **deiskio**, dezaioke
zaizkigu, **jakuz**

Kristau sinesmena eta klaseen burruka

Kristau asko, lantoki eta bulegoetan,* industri eta laborantza* lekuetan gizonaren alderako burrukan ari direnak, problema berrien aurrean aurkitzen dira. Lehen, oraindik aspaldikoak ez diren garaietan, arazo sozialak laster konpontzen ziren, «Elizak hau dio» esanez. Baina, gaur egun, ez gara kontent gelditzen, «Elizak hau dio edo hori kondentatzen du» entzunik. Geuk ere arazo konpontzaile izan nahi dugu, eguneroko bizitzarekin eskuz esku geure problemak garbituz.

Hoietariko bat, «kristau sinesmena eta klaseen burruka» da.

Orain arte, klaseen arteko burruka erabateko* gaiztakeria izan da, kristau anaitasun eta maitasunaren kontrako zerbait.

Hala ere, kristau gizona, kontzientziadun edozein gizon bezala, eguneroko errealitatean murgildurik bizi da. Errealitate hori, berriz, oso bizirik presentatzen zaio, eta klaseen arteko burruka batean jokatzera behartzen du.

Izan ere, gizartean nagusigoa* duen taldeak ez ditu bere pribilegioak bertan behera utziko, alde aurretik burrukan bere burua azpiraturik ikusten ez badu. Bitartean, gizon banaka batzuk aberastasunez gainezka bizi direlarik, beste guztiek harrastaka eta makurka bizi beharko dute. Beraz, klaseen burruka hor dago, geure artean dugu, eta Eliza ere ezin daiteke hartatik aparte bizi.

Ez da harritzekoa, beraz, kristau ekintzaileek «kristau sinesmena eta klaseen burruka» gaiari buruz erreflesioak egitea, eta gaur egun inoiz baino premiatsuago.

Horrela, «Frères du monde» izeneko aldizkariaren inguruan biltzen diren kristauek, aldizkari horren 69. zenbaki osoa hartu dute. «munduko klaseen burruka» gaiari

buruz idazteko. Era berean, 72 eta 73. aleetan ere, «kristau sinesmena eta klaseen burruka» estudiatu dute. Haien artikuluen tituluetatik laster uler daiteke, zeintzuk arazo jorratu nahian dabiliz: «Jesukristogan sinestea eta klaseen arteko ekintza», Domenergue frantziskanoak; «Berboak klase burruketan haragia hartzen du», Cardonnel dominikanoak; «Klaseen burruka, moralaren oinarri», Blaise frantziskanoak.

Kezka hauen ezagugarrikeria berriena, Rouen hirian 600 bat gaztek egindako bilera* da. Gazte hoik* Frantziako eta beste zenbait* naziotako kristau mugimenduetakoak dira, eta «kristautasuna eta klaseen burruka» gaiari buruz elkarrekin estudiatzen eta mintzatzen ari izan dira.

Era berean, egun hauetan argitaratuko du frantziskanoeen editorial etxe batek, Girardi ospetsuak prestaturiko liburu bat. Girardik «kristautasuna, giza liberazioa eta klaseen burruka» aztertzen du, eta argi eta garbi dio, gaur egunean oinarritzko arazoez teologoak ere arduratzaren hasi direla.

Nondik ote dator gaur egungo ardura eta kezka hau? Ez dut uste, oportunitate batetik datorrenik. Ene eritziz, problema hau eguneroko bizitzan nabaritzen* dituztenak, gaia aztertzen eta estudiatzen hasi dira, errealitateak berak bultzaturik. Eta hortixek dator, kredo ezberdinetako gizonak elkarrengandik hurbilago* eta elkar laguntzaren behartsuago izatea.

Gaur egun gu gizonok gehien elkartzen edo banatzen gaituena, ez da sinesten dugun kredo edo praktikak dugun ekitza politikoa, bizi garen talde soziala baino. Hori jakiteko, nahikoa da galdetzea, zein taldetan gauden, zapaltzaileen ala zapalduenean.


J. M. A.

guztietariko
elektrodomestikak
sukaldearen
lagungarri

salneurri
apartekoak
1971



COCINAS



FRIGORIFICOS



LAVADORAS SUPERAUTOMATICAS



Edesagaz, bizitza goxoa elkarregaz

1971-n egindako produkzio handiari eskerrak ditugu holako salneurriak

"Marx eta Nazioa" liburuaren inguruan

Gotzon Garaterekin hizketan

Liburu inportante baten aurrean aurkitzen garela uste dut. Haren egilea, Elgoibartar gazte bat dugu: Gotzon Garate. Oraingo honetan lan serio bat eskaini dauku, zientzi lan bikaina. Bi aletan aterako da ETOR editorialean. Lehena, irakurria dugu. Bigarrena, ez dakigu noiz agertuko den.

Gaia, sakona eta guztiz interesgarria gaurko egunean. Liburu horri dagokion azterketa egitea ez da erraza. Gainera, oso luze joango litzaiguke. Biderik zuzenena, haren mamiaz jabetzeko, liburu hartu eta irakurtzea da. Baina, beste aldetik, interesgarria iruditzen zait, egilearekin izandako elkar hizketa baten laburpena ematea. Ez da erraza, hark esandako dena laburtzea. Dena dela, hona hemen gure solasaren* berri.

—Orain dela gutxi, honen antzeko beste liburu bat ere ikusia dugu: Jose Azurmendiren «Hizkuntza, Etnia eta Marxismoa». Elkarren artean ba dute zerikusirik?

—Oraindik, osorik irakurtzeko betarik* ez dut izan. Baina, orain arte ikusi dudanez, oso liburu interesgarria da. Gaiari buruz, nirea baino askoz zabalagoa. Nik Marx bakarrik estudiatzen dut. Azurmendik, oster, bai Marx, bai Lenin... Problema bera ere, nik ikutzen dudana baino askoz zabalagoa da. Nik Marxengan azaltzen den nazio ideia aztertzen dut.

Beste aldetik, Azurmendi, idazle eta pentsalari bezala, oso ona iruditzen zait. Uste dut, gaur eguneko pentsalaririk onenetakoa dugula, nortasun haundiko gizona.

—Zure liburuak gai polemikagarria gertatuko dela uste dut. Zer espero duzu, beraz, zeure liburu horretatik?

—Gauza hauetan, jakina, lehen xedea* gizon baten pentsakera aztertzea da. Marxi buruz gai honetan ez da asko idatzi. Gaur politikan kontzientziatuta daudenek, marxismoa eta nazionalismoari buruz beren artean dituzten polemiketan, Marxen beraren eritzia baino Lenin edo Stalinena erabiltzen dute gehiago. Lenin eta Stalinen zuzen zuzenean ikutu zuten gai hau, baina Marxen eritzia sakabanatuta daude. Marxek ez du biribildu bere pentsakera gai honetaz. Horregatik, oso interesgarria da, Marxek zer pentsatzen zuen jakitea.

Beste aldetik, ba dakigu ongi, Euskal Herrian problema hau bizi bizia dela. Eta geurea dugun problematika honetan argi pixka bat ere eskaini nahi izan dut. Nire bidea, Marxek zer esaten duen ematea da.

—Marxen eta Engelsen joera oso ezberdina da —zure liburuak lekuko*— Poloniari buruz, esate baterako, eta beste herri tipiei buruz. Hau zergatik?

—Marx, beti, oso zintzoa izan zen bere buruarekin. Haren asmoa, gizarte on bat sortzea zen, gizarte komunista bat. Horregatik, gizarte horren alde ari ziren lan guztiak oso begiko zituen. Beraz, nazio baten jokabidea iraultza* horren aldeko zela ikusten zuenean, eta klase burruka azkeneraino eramateko prest zegoela, haren alde jartzen zen.

Baina eslabo herri batzuen joera iraultzaren kontra zela iruditzen zitzaion. Hauek Rusiaren alde eta Hungariaren kontra jokatzeko zutela, ikusten zuen. Polonia, oster, nazio inportante bat bezala ikusten zuen, Rusiaren indarra desegiteko gauza zena. Kontuan eduki behar da, Rusia erreazionariotzat hartzen zuela. Beraz, Poloniaren alde egitea, Rusia eta Prusiaren indarrak ahultzea* zela ikusten zuen. Marxen leloa* eta erregela gidaria, iraultza zen. Hau izango da azken norma. Eta, honela, pertsonalitatea zuten herriak beregain* izan zitezkeen; baina besteak ez, ahulak* eta gizajoak zirelako.

—Zergatik, beraz, Marxen mesfidantza herrien eskubideei buruz?

—Ba dakizu, Marxentzat, beti, eskubidea superestruturan, goiestrutan dago; eta, beti, burgesen aldekoa izaten da eskubide hori. Horregatik, nazio problema eskubideen aldetik planteatzea oso susmo txarreko gauza da Marxentzat.

—Nola konpontzen du Marxek indibiduo-gizarte bikoiztasuna?

—Begera, komunista gizaratean gizabakoitzaren* ona eta gizaratearena bat izango dira. Burges gizaratean, oster, kapitalistek ez dute beren ona besterik bilatzen. Horregatik —hau da Marxen eritzia— burgesek ardietsi* nahi duten askatasuna berekoikeriazkoa* da. Gizarte ustel bat lortu nahi dute.

GOTZON
GARATE



—Eta, orain, liburuaren mamitik atera gaituzen. Zuk ETOR-en beste liburu bat ere atera zenuen: «Marxen Marxismoa». Liburu horri singleago eta ulerterrazago deritzat; baina zure bigarren liburu hau behar bezala ulertuko ote du irakurleak?

—Galdera, interesgarria da. Nire etxekoek, esate baterako, zaila aurkitzen dute. Gogoan izan behar dugu, ikasi dugun euskara etxean ikasi dugula, eta honelako liburuak, nobelak edo ez diren bitartean, minoria baten izaten direla. Horregatik, nahiz eta euskara ederra izan, jendeari zail egingo zaio. Baina bidea ireki behar dugu. Niretzat oso inportantea da euskara ona ematea. Nahiz eta zaila izan, denborarekin gauzak errazago egiten zaizkigu.

—Ohitura problema dela esan gura* duzu?

—Jakina. Kontuan eduki behar da, euskal kultura eta hizkuntzan, oro* har, oso hasieran gaudela. Problema, haundia da. Horregatik, ene eritziz, nobelak eta irakurgai errazak idaztea behar beharrezkoa dugu. Hemen dugun hutsunea, ikaragarria da. Zu joan zaitez liburu denda batera, eta, zientzi liburu bakoitzeko, hamar nobela gutienez aurkituko dituzkezu* erdaraz. Baina guri alderantziz* gertatzen zaiku. Nobela errazak bagenitu...

—Zer asmo duzu etorkizunerako?

—Hemen, Unibertsitatean, eskolak ematen jarraituko dudala uste dut. Nire asmoa, eskolak euskaraz ematea izango litzateke; baina ikasleen aldetik dago batez ere problema. Ikasle denek euskaraz balekitez, bihar bertan hasiko nintzateke. Gaurko giroan eta gaurko legeen arauerak* ikasle denak euskaldun ez diren bitartean, erdaraz egitea behartuta aurkitzen gara.

Dena dela, nire asmoa, Unibertsitatean bertan, euskal giroa sendotzea da: ikasleen artean euskararen alde lan egiten dutenei lagundu, irakasleen artean ere —ahal den neurrian— euskal giro bat sortu, eta idazten jarraitu: nobelaren bat edo... Gero, ba dut asmoa, filosofiazko hiztegi bat egiteko. Lenin eta Maori buruz ere ba nabil beste zerbait prestatzen. Euskal antropologiari buruz ere ari naiz, kulturazio problemari buruz, eta abar.

"Marx eta Nazioa"...

--Unibertsitateko irakasle zarenez gero, nola ikusten duzu gure kulturaren etorkizuna?

—Problema eta oztopo gogorak daude. Baina baikor, optimista nago. Euskararen garrantziaz konturatu garela, gazteak batez ere, ikusten dut. Eta honek poz handia ematen dau. Izan ere, zaharren artean, nahiz eta oso eskalzalak izan, oraindik kutsatuta daudela ikusten dut. Hau leku guztietan gertatu izan da: Txekoslovakian, esate baterako. Urratsak* egiten dira, etapak; eta lehen urratsa hizkuntzaren alde egitea izaten da, baina menperatzaileen hizkuntzaz baliatuz. Gaurko gure gazteek, ordea, euskaraz baliatu nahi dute.

Egia da, gazteen artean euskara ez dela hain biribila, hain goxoa, beste giro batean bizi izan direlako. Baina gazteak gogo handiz datoz, asko ikasten dute, eta denborarekin...

--Baina, konkretuki, zer deritzazu Unibertsitate datorren euskal gazteriarri?

—Dudarik gabe, Euskal Herriaren esperantzarik haundienetakoa —hori soziologo guztiek garbi ikusten dute— ikasleak dira. Datozen urte hauetan aldaketa ikaragarria ikusiko dugu puntu honetan. Jakina, nire gogoia langileak ere etortzea litzateke; baina orain, «factum» honetan, errealitate honetan, Unibertsitatean aurkitzen diren euskaldun hauek ba dute, benetan, eginkizun berezi bat: Euskal Herriaren kultura aberastea. Eginkizun hau Herri osoari dagokio: langileei, nekazariei, eta abar. Baina unibertsitario hauen betebeharrak berezia, Herri osoaren ohiartzuna* jasotzea* eta Herri horren zerbitzari izatea da. Horregatik, lagundu egin behar diegu euskal ikasle hauei, ahal dugun neurrian.

Eta batez ere gizonari buruzko zientzietan —«humanidades» deituetan —egin behar dugu ahalegina.

—Benetan, ba dago zereginik euskal alorrean*!

—Hala da. Gai hauetan dugun deficit ikaragarri hori bete egin behar dugu. Eta, ene ustez, lehen esan bezala, unibertsitarioen betebeharrak ez da txantxetakoak. Hortik dator gure esperantza. Eta gero, hori bai, denok elkartuta lan egin behar dugu.

Eta hemen ematen diogu amaia geure elkar hizketa honi. Ene ustez, gaiak merezi zuen honelako aipamen bat. Liburuak harrera ona izango duelakoan nago. Ea, poliki poliki, geure Herriaren kultur maila goratzen dugun. Langileak ba dira euskal zelaian. Ez ahal dira agortuko!

HORMAETXE

Bilbotik, 1972.eko otsailaren* 24ean

bagenitu, bagenduz
daude, dagoz
dauku, dausku, digu
daut, daust, dit
diegu, dautsegu
diogu, dautsagu
gaude, gagoz

litzaguke, litzakigu
zaiku, jaku, zaigu
zaio, jako
zait, jat
zaizkigu, jakuz
zitezkeen, eitekezen
zitaion, jakon

Bastida jaunari omenaldia

Bastida musikariari omenaldi bat eskaini eutsoen Donostiako «Astoria» zinetokian, joan dan otsailaren* 27an. Modesto Escobosa eta J. M. Arozamena jaunek hitzaldi bana eman eben. «Easo» abesbatzak kantaldi bat, eta «Anexa» ballet taldeak bere artearen erakusketa labur bat.

Argitasunak «Marchas a Javier» dalakoei buruz

1971. urtean «Marchas a Javier» dalakoek izan dituen diru gorabeheren berri eman izan dabe ibilaldi famatu horren antolatzaileek. Egin izan diren gastuak 251.724 pezeta izan dira; eta batu izan dan dirua, ostera, 206.173 pezeta. Egindako zorra, beraz, 45.551 pezetakoa izan da.

Compruebe personalmente que
BYASS 96
es tan importante como dicen...



GONZALEZ BYASS

JEREZ • XÉRÈS • SHERRY

DEPURACION DE AGUAS

S. A.

URA GARBITZEKO TRESNA BEREZIAK

Ur lohia gardentzeko, igertokietakoa berritzatzeko, edatekoa egokitzeko, lantegietarako prestatzeko.

Tel. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01

Gordoniz, 44 - BILBAO



Nori gabeko eskutitzak

Bilbotik, 1972.eko martxoaren 12an

Kaixo, adiskide!

Barkatuko dautak, orain arte ez erantzutea. Bai, hartu nian hirea; baina sinets ezak, lehenago idatzi ez badauat, ez dela izan alferkeriagatik, astirik ezaz baizik. Gaur, igandea dela kontuan harturik, behingoan* hasi nauk idaztera; holaxe ibili behar.

Ahaztu aurretik zera esan nahi dauat, Patxi, Antonen anaia, irten berria dela kalera. Gaixoa, ikusten* bahu nolako itxura xarrez azaldu zaikun! Argal argalik eta ia ia non dagoen ez dakielarik. Zainetatik, bestalde, ez omen* diabilak ongi. Zer eginen dogu!? Guztiok, hori bai, ahalegina egin behar diagu, bizitza berrira ahalik eta lasterrenik ohi* dadin. Arropaz ez diagok batere horniturik; eta hemen guztiok ahal duguntzua egin diagu, zerbait emateko. Heuk ere bidaliezok zerbait, ahal baduk. Sarri askotan jendeak halakoak miresten* ditik; baina ez ziaioz inoiz laguntzea bururutzen.*

Beste arlori pasatuz, gure oraingo literatur krisiaz mintzatzen hintzaitan lehenagoan. Arrazoa duk oso. Nik ere ezin garbiago diakusaat zein egoeratan gauden. Aspaldiko gure literatura, ahula* duk, arinegi egina, estilo eta ardura berezirik gabe moldatua. Dioana, bestalde, egia duk, alegia,* argumentuak eta gaiak, bai idazleengan eta bai geure inguruko giroan, ezin ugariagoak eta bikainagoak ditugula, literatura on bat egiten saiatzeko. Zergatik ez da, ba, puntarengo obrarik agertzen? Denborarik ez, nik uste.

Arraultzak* kontserbatzen baditugu, ez duk xitarik aterako; eta, xitak sor daitezen, arraultzak galdu egin behar. Beste hitzetan esanik, euskararen literatur batasuna moldatu, ala, oinarrizko lana finkatu gabe, literaturgintzan hasi?

Baina guk ez diagu honetan aukerarik. Bi biak behar beharrezkoak ditiagu, eta horregatik arlo bietan lan egin behar diagu. Noski,* oinarrizko lana ongi egin behar duk, zimentu sendo bat geldi* dadin; eta, horregatik, literatura eta kreazio lana duk abandonatuenik dagoena. Adreiluak* egiten ari gaituk, eta etxea bera ere bai, biak batera. Gure aurrekoek guri utzi ez zeukutena behintzat, geure ondorengoei eginik utzi behar zieagu guk oraingoan.

Barka, baina ni ez nauk hain maleziati. Hik esandakoa, alegia,* «egin behar zena egiteko bildu ondoren, ez zuan ezer egin, ez ziaten ezer egin, hobeki esan; eta oraingook beraiek egin ez zutena egin nahi dugulako, gure egite honekin haien ezegite hura* nabariegi* geldituko litzatekeelako edo, eten gabeko boikota egiten saiatzen ziaizkiguk gazteoi jo eta ke». Ez diat uste, hik dioan borondate xar horrekin egiten dutenik, euskararen onean zerbait egiten dutelakoan baizik. Adin* ezberdinekoen artean elkar ulertzea ez duk beti erraza; baina, bestearengan borondate gaiztoa aurreritzen* badugu, are* zailago bihur* diaitekek elkar hizketa.

Nonbait irakurri nian, ez diakiat inoiz esan dauadan, Historiari oztopoak jartzen saiatzen dena, Historiak berak alboratzen eta irensten duela; eta, berau egia bada ere, halakoek, dirauten* artean, ezin uka kalte galanta egiten daukutenik. Noski, baratzainaren* zakurraren gisa ari dituk: haiek ezer egin ez, eta inori egiten utzi ere ez. Hainbat xarrago, Historiak eginen dien judizioa.

Horregatik, uste diat, batasun lanak ia guztiz bukatu

arte, ez dugula astirik ukanen euskaldunok, behar den patxadako literatur lanak egiteko. Materiala egin, planoak moldatu, oraingo burruka hau irabazi eta ondoren, etxea eta lorategia eraiki.

Irakurleagoari liburuak eskaini behar ziaizkiok: irakurgai batzuk, noski, ahalik eta kalitate hoberekoak; baina, ba dakik, gerran gosea ez duk beti ogi zuriz asetzen. Besterik ez dagoenean, ogi beltza ere gozoa izaten duk.

Itzulpenen premia, obra klasikoenenaz bederen,* enekin hagoela diakusaat. Ikusten denez, ia dena egiteko diagu oraino.

Eta, beste gabe, besarkada bat hire lagun

XABIERRENGANDIK

TOKETAZKO ADITZ FORMAK

diabilak, **dabila**, dabil
diagok, **dago**
diagu, **dugu**
diaitekek, **daiteke**
diakiat, **dakit**
diakusaat, **dakusat**, ikusten dut
diat, **dut**
ditiagu, **ditugu**
ditik, **ditu**
dituk, **dira**
duk, **da**
gaituk, **gara**
nauk, **naiz**
nian, **nuen**
ziaioz, **zaio**, jako
ziaizkiguk, **zaizkigu**, jakuz

ziaizkiok, **zaizkio**, jakoz

ziaten, **zuten**

zieagu, **diegu**, dautsegu

zuan, **zen**, zan

OSTERANTZEKO ADITZ FORMAK

dauat, **dauat**, diat

daukute, **daukue**, digute

dautak, **daustak**, didak

die, **dautse**

diok, **dinok**

ezak, **eik**

hintzaitan, **hintxatan**, hintzaidan

iezok, **eiok**

gaude, **gagoz**

zaiku, **jaku**, zaigu

zeukuten, **euskuen**, ziguten



Emakume, gizonezko eta umeen jantziak

Oihal, izare eta etxean behar diren
gainerakoak

Bai emakume eta bai gizonezkoentzako
jantzi aukeratuenak, azken
modara eginak

HURI ZAHARRA

“Casco Viejo”

BILBO

Japon, imperio berri bat?

Azken hamar urte hauetan Japonek bere produzioan egin duen gorakada, harrigarria izan da, beste inongo estatuk egin ez duen bezalako.

1964.ean munduko potentzien artean seigarren tokian aurkitzen zen Japon, USA, Rusia, Ingalterra, Frantzia eta Italiaren ondoren.

1969.ean, berriz, hango errenta nazionala 167.000 milioi dolarretara iritxi* zen; eta USA eta Rusia ziren bakarririk, Japonek baino errenta handiagoa zutenak, batak 932.00 milioi eta 400.000 milioi besteak.

Azken hamar urte hauetako hazkuntzak jarraitzen badu, Japon, 1983.erako, Rusia baino produzio handiagora ailega daiteke, eta XXI. mendean* munduko aurrenengo mailan egonen da.

Gaur egunean, 369.767 km².tan, 103 milioi bizilagun daude (278 bizilagun km².ko); eta, lur hoietarik % 20 bakarrik bizitzeko kondizioetan direnez gero, japonese gehienak pilaturik bizi dira hiri* handietan.

Jendea hirietan pilakatzen den eran, enpresak ere «trust» modura elkartzen dira. Enpresa hauen handitasuna zenbaterainokoa den ikusteko, kontuan hartzekoa da, mundu guztiko 100 enpresa handienetan Japongo 19 sartzen direla.

Nola heldu da Japon horrenbesteko potentzia izatera?

Ba ditu Japonek berezitasun ugari, eta hauk* dira garrantzitsuenak:

Inon ez bezalako inbertsioak egin dira aspaldian. Produktu nazionaletik % 34eko hazkuntzan jarraitu du azken hamar urteotan, eta Europako nazioak ez dira % 25era irixten.

Kanpoko teknikarari asko ekarri dute eta beren enpresetan lanean ipini. Bertako estudiantek, ordea, atzerriara bidali dituzte, heziketa* tekniko hobea lor* dezaten.

Estranjeriako makinaren patenteak erosita, makina berak hobea egin dituzte, eta beste inork baino merkeago saldu.

Baina alderdirik garrantzitsuena esku lanaren egoera da. Bigarren gerra nagusiaz geroztik, zapalketa handia egiten ari dira amerikano inbertsionistak langileen artean. Alokairuak oso tipiak dira, eta gauza normala da egunean hamar ordutan lan egitea.

Dato hauk* kontuan harturik, ez dago dudarik, Japonen inbertsioak egiteko kondizio ezin hobeak ematen dituela, eta nazio atzeratuen inguruan egoteak asko laguntzen diola, bere merkatua zabaltzeko. Hala ere, eta hauxe da gogorrena, Europa eta USAn egin dituen salmentak* Asian egindakoak baino handiagoak izan dira.

Zerbait gehiago esan behar dugu. Japon potentzia ekonomikoa izatera heldu dela esan dugu. Baina, gaur egunean, potentzia hori oso ergel gelditzen da, militar aldetik sendotzen ez bada. Eta hona hemen, Japonen potentzia politikoa izateko dadukan eragozpenik handiena: Lehen aipatu dugun USAn zapalketa ekonomikoa dela eta, haren kolonia senda bat izango da Japon; eta, lotura hoietarik askatzen ez den bitartean, bere enpresak eta gobernua USAn inperioko dominioak izango dira.

Horregatik, oraintsuko dolarraren krisialdian, USAk markatu zion yen-en (bertako monedaren) rebaluzioa egin zuen eran, aurrerantzean ere amerikanoen diruarekin muntaturiko enpresa hoiek ematen dituzten aginduei jarraitu beharko die Japongo gobernuak.

J. ARRIZABALAGA

daude, **dagoz**
dezaten, **daien**

dio, **dautso**
zion, **eutson**

Estitxu langile

Estitxu kantaria bi diskorekin agertzen jaku. Lehen diskoa txikia da, eta «Agur, Maria» eta «Kattalin» kantuak dakar. Bigarren diskoa haundia da, eta bertan hainbeste kantu —«Ilun beti», «Ezin» eta beste batzuk— agertzen dira. Ba dogu non aukera, geure «Urretxindorra»-ren boza entzun ahal izateko. Disko hau «Columbia»-re txetxeak argitaratu dau. Jarrai lanean, Estitxu!

Transportes "ANAITASUNA"

- Trasporte kooperatiba euskalduna, gaurko egunak eskatzen duen modukoa.
- Karga osoak nahiz paketeak, peninsula guztirako.
- Euskal Herriko komertzio eta industriaren zerbitzuan.

TRANSPORTE ARAZOAN LAN EGITEN DUTEN KAMIOIDUNEI:

- Egin ditzagun enpresa haundiagoak, geure interesak zaintzeko eta irabaziak gehitzeko.
- Bakarrik ezin duguna, elkartuta egingo dugu.
- Gure gaitz guztien sustraia, nor bere aldetik ibiltzea da.
- Elkartu ditzagun geure indarrak.
- Sartu zaitez «ANAITASUNA» trasporte elkargoan.

Hona hemen zuzenbideak

PAMPLONA
Pico de Ori, 2
Tel. 23 92 40

SAN SEBASTIAN
General Mola, 45
Tel. 42 81 77

BILBAO
Gordóniz, 93
Tel. 32 78 85

VITORIA
Concejo, 5
Tel. 21 14 35

BEASAIN
Avda. Navarra, 47
Tel. 89 18 37

ALSASUA
Mayor, 8
Tel. 56 01 76

MADRID
Paseo de la Chopera, 29
Tel. 228 45 46

TOLOSA
Carr. Leaburu, s/n
Tel. 66 10 24

Euskara batua, lapurtara klasikoaren alde (1)

Zuzendaritzaren oharpena. Artikulu hau eta honen ondoren etorriko direnak, lapurtara klasikoaz idatzirik heldu zaizkigu, hau da, ortografia etimologiko batez eta kontsonante aspiratuez. Idazlearen baimenaz, aldizkari honetan segitzen den ohizko ortografiara aldatu dugu, kontsonante ondoko h-ak kenduz.

Euskararen batasunaren problemak tratatzen direnean, arrazoi extralinguistikoak ekartzen dira. Batzuetan honela fede onez gertatzen da, zeren* eta hizkuntza baten batasun problema itaunkari* linguistikoak huts hutsik ez baita. Hala ere, beste batzuetan ekartzen diren argumentu extralinguistikoak ez dira politikoak, politikeriazoak baizik. Eta hemen fede tzarra dela esan behar dugu orduan.

Batasunaren problematika honetan, honez gainera, ezin daitezke argumentu guztiak kolpe batez aldera.*

Beraz, problematikan sartzen diren argumentu gizartelogikoak* eta politikoak, faltsukeria gabe tratatu behar genituzke, euskararen batasunaren problema gure hizkuntzarentzat hil-ala-biziko itaunkaria denez gero. Hau gertatu behar litzateke, behintzat, euskara maite dugunon artean.

Gipuzkarazalea den «Larresoro» jaunak ZERUKO ARGIAN bi artikulu idatzi zituen, duela zenbait* aste: **Eibartarrari gutun* agiria** eta **Bide bat behar**. Problematika orain lapurtara (klasikoaren edo ez klasikoaren) eta gipuzkararen artean baitago, jazargoa* argitzeko oinarritzat har ditzakegu.

Larresorok bide bat behar dela diosku..., eta, bidea bezala, gipuzkara (beharbada **donostiara**) osotua proposatzen dauku.

Lapurtara klasikoaren kontra, berau hizkuntza «arkai-koa dela eta kausa honengatik utzi behar dela» esatea, lapurtara klasikoa zer den ez jakitea da, zeren* eta gehienetan lapurtara klasikoak lapurtara berriaren aldean daduzkan diferentziak, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan hobeki uler daitezkeen formetan baitaude. Hala ere, lapurtara klasikoaren eta berriaren arteko diferentziak hain ttipiak direlarik, haiei buruz bi literatur dialekto bailiren bezala mintzatzea, dudarik gabe, behiegikeria da. Lapurtararen diferentziak, modalitateak edo estiluak direla esan genezake.

Lapurtara klasikoak **nendin, nengoen, liteke** eta abar ditu; eta forma hauk* **nindadin, nindagoen** eta **litake** baino hobeki ulertzen dira Bizkaian. Haez gainera, lapurtaraz enplegatzen diren forma batzuk, Bizkaian gipuzkarazko formak baino hobeki entelegatzen* dira. Honela, lapurtarazko **zaiku** (bizk. **ddaku, jaku**, gip. **zaigu**), **datorku** (bizk. **ddatorku, jatorku**, gip. **datorkigu**), **dagoko** (bizk. **ddagoko, jagoko**, gip. **dagokio**) eta beste formarik asko, gipuzkara ez den dialektoentzat ulerterrazagoak dira.

H. GARAIGORTA

daduzka, **daukaz**, dauzka
daitezke, **daitekez**
daude, **dagoz**
dauku, **dausku**, digu

ditzakegu, **daikeguz**
genezake, **geinke**
genituzke, **geunkez**
zaizkigu, **jakuz**


Legezkoa da gaur eguneko emakumeak bere bankoan kontu irekia edukitzea.

Lehen, diru aurre-ratuaren kontua aurrezki gutun batean gordetzen zuen bezala.



Banco de Bilbao

Banko honek emakumearen eskubideak zaintzen ditu




Bihar eguzki ala euri?

Nor ez da inoiz urduri* egon, biharamunean egingo duen eguraldia dela eta? Jai egunerako planak (mendirako irteerak*, esate baterako) prestatzen ditugunean, beti izaten gara eguraldiaren beldur. Hala ere, eguna noiz etorriko den zain gaudelarik, ba dugu eguraldi onaren esperantza, eta profeziak botatzen ditugu geure optimismo edo pesimismoaren arauera.* Horretarako, geure esperientziak baliatzen gara, haizea, zeruaren iluntasuna eta abar interpretatuz.

Ba dira, horretan oso habilak direnak (Upo mendiko artzaina, adibidez), eta jendearen aurrean ospe handia izaten dute. Egia esan, nahiz eta tresna arruntak* erabiltzen dituzten, pertsona hauen jakinduria haintzat hartzea da, zientifikoki betetzen baitute beren lana.

Zer egiten dute pertsona hauek? Lehenik, esperientzia aberats baten jabe dira, urte asko eman baitute zerua azterkatzen, han gertatzen diren fenomeno atmosferikoei kasu emanez. Era honetan, fenomenoaren arteko erlazioak biltzen* dituzte; eta, honela, zer hau jazotzen* denean, biharamunean beste zer hori gertatuko dela jakiten dute. Gainera, beren auresanak egiazkoak diren ala ez egunero konprobatzen dute, eta horrela probabilitate handiko iragarpenak egin ditzakete.



Ba ote da hau lan zientifikoa? Bai, hauxe besterik ez baita zientzigizonek erabiltzen duten metodoa. Non da, bada, diferentzia? Askori arraro irudituko bazaio ere, diferentzia bakar bat dago: artzainaren esperientzia berea baino ez da; zientzigizonek, aldiz,* munduko beste jakintsuen —hil nahiz bizi diren— lanak hartzen dituzte oinarritzat. Beraz, tresnen diferentziak gainera, lankidetasunean datza aldea.

Utz dezagun artzainaren kasua, eta dakusagun meteorologiaren kuriositate bat. Ba da telebistan programa labur bat, askori interesatzen zaiona, eta egunero telegunkariaren* ondoren ematen dena. Emanaldi horretan, meteorologo bat «igarle» jokoetan aritzen* da; baina hark esaten duenak, ez du profeziaren kutsurik, logika eta esperientziarena baizik.

Han agertzen diren irudiei esker, eta ohituraren ohituraz, denok dakigu, presio atmosferikoa handia denean, antizikloia formatzen dela, eta, tipiã denean, aldiz,* zi-

kloia. Baina, beharbada, ez gara konturatu, fletxa batzuek haizearen zentzua seinalatzen dutela. Telebehatzaileen* artean, guti dira nonbait, fletxa hoiien berri zehatzik dutenak.

Alabaina,* presio berdineko puntuak seinalatzeko, isobaro deritzen* arraia batzuk egoten dira, Baina ukan* duzue inoiz kontuan fletxen direkzioa? Gaur berton errazki konproba dezakezue, fletxa hoiiek erloju orratzaren zentzua seinalatzen dute antizikloi inguruetan, eta erloju orratzaren kontrakoa zikloi inguruetan.

Ba dugu lehen informazio bat. Goazen orain Hego Hemisferiora, Argentinara, eta ikus dezagun hango eguraldi mapa bat. Euskal Herriko logikaren arauera,* Argentinarek alderantziz* egiten dituzte beren mapak: antizikloi inguruetan haizea kontraerlojuzko zentzuan mugitzen da, eta zikloi inguruetan, berriz, erlojuzkoan.

Gertaera bitxi hauek lurraren errotazioan dute beren kausa. Fisikan ikusten denez, Ipar Hemisferioan mugitzen den partikula oro* eskuinetarantz desbidatzen da, eta Hego Hemisferioan ezkerretarantz.

Kausa beragatik, Ipar Hemisferioan, hibaiek erositio gehiago izaten dute eskuineko ertzean,* ezkerrekoan baino. Berdin gertatzen da bide bikoitzeko trenetan ere. Trena beti zentzu berean joanik, eskuin aldeko burdina gehiago gastatzen da. Eta, amaitzeko, soldadutzan egon direnek ba dakite, proiektilak eskuin aldera desbidatzen direla.

Hego Hemisferioan, mugimenduek ezkerretarantz jotzen dute, eta, aipatu ditugun kasuetan, gauzak alderantziz* jazotzen dira. Beharbada, horregatik, Hego Hemisferioko iraultzek* ezkerretara jotzen dute.

J. R. ETXEBARRIA

dakusagun, ikus dezagun
dezagun, daigun
dezakezue, daikezue

ditzakete, daikeez
gaude, gagoz
zaio, jako



ELAIS ALAI

YURRE

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra
Astegunez: 7.tatik 11 ra.

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

Gurutzegrama (3)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2					█	█				
3				█			█	█		
4		█							█	█
5	█	█					█			█
6					█				█	
7		█					█	█		
8			█	█						
9		█						█		
10			█		█				█	

Ezker aldetik eskuin aldera: 1. Euskal idazlea, 1571 urtean Testamentu Berria argitaratu zuena.—2. Edaria. Afaldu partizipioaren infinitiboa.—3. Toki adberbioa. Ukatzeko hitza (alderantziz). Nota musikala.—4. Bokala. Etsaia.—5. Izan aditzaren forma. Trankilaldia, normalki gauez izaten duguna (alderantziz).—6. Dut (toka eta alderantziz). Alaitasuna. Kontsonantea.—7. Bokala. Ogia edo mineralak erretzeko su lekua. Nota musikala.—8. Erretzen duena (alderantziz). Hamazazpigarren mendeko euskal idazlea, «Gero» liburuaren egilea.—9. Bokala. Laztana. Izenorde pertsonala.—10. Ukan aditzaren forma. Bokala. Nire. Bokala.

Goitik behera: 1. Boterea (alderantziz). Alderantziz, ukan aditzaren forma (nik hiri orain hitz egiten...).—2. Zorua. Bokala. Kontsonantea. Bokala.—3. Euskal poeta, gerra aurreko lirikorik garaiena (alderantziz). Kontsonantea.—4. Txori beltza, sasi artean ibiltzen dena (errepikatuz). Animalia batzuek buruan dutena (alderantziz). Dolorezko oihi hitza.—5. Bokala. Izenorde interrogatiboa. Afirmazio hitza.—6. Kontsonantea. Lehen euskal idazlea (alderantziz).—7. Emea ez dena (alderantziz). Bokala. Bokala. Izenorde pertsonala (alderantziz).—8. Nota musikala (alderantziz). Animaliak erakusten diren tokia (alderantziz). Kontsonantea. Bokala.—9. Suari darion gortasuna. Kontsonantea. Gizonaren ahalegina.—10. Garaua, bihia. Ogia egiteko irina ematen duen alea (artikularekin).

Goitik behera: 1. Ahal. Datu.—2. Ero. A. S. U.—3. Lizardi. M.—4. Zozo. Adar. Ai.—5. A. Zer. Bai.—6. R. Etxepare.—7. Ar. I. O. Neu.—8. Fa. Zoo. L. E.—9. Gar. Lar.—9. A. Maite. Ni.—10. Du. I. Ene. A. Zara. Lo.—6. Diat. Poz. G.—7. A. Labe. La.—8. Su. Axu. ga.—2. Ardo. Afal.—3. Hor. Ez. Re.—4. A. Aretio.—5. AZALPENA. **Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Leizarrar.

Manuel Lekuonaren mintzaldia Andoainan

Manuel Lekuona jaunak berbaldi bat eman berri dau Zuloaga pintoreari buruz, Andoainan, joan dan otsailaren* 26an.

Logroñoko ikastola

Azken urteotan Euskal Herrian jazo* diren gertakariak begiratu, ba dugu zertaz alegera eta zertaz triste egon. Dena dela, hobe dukegu* izarrei eta ez gau beiztari kasu gehiago egitea.

Ikastolei dagokienez, ba dugu zertaz pozarren* egon, izan dituzten oztopo guztiak gorabehera, bizirik dirautela ikusirik.

Teoriaz behintzat, denok onartzen dugu, zazpi probintzietatik aparte ba ditugula beste lurralde batzuk ere, Euskal Herria direnak. Hoietarik inportanteena, ene ustez, Errioxa aldea da. Eta zergatik ez dugu ikastolen usain gozoa alderdi horretan nabaritzen? Esaterako,* Logroñon zergatik ez dugu oraino ikastolarik?

Gasteiz* eta Tafallarekin konparatuko dut Logroño, puntu askotan hirurak berdin direla pentsatuz. Gasteizen eta Tafallan ez dut uste Logroñon baino euskaltasun haundiagorik dagoenik. Zenbaitek* pentsa lezake, Gasteizko azken urteotako euskaltasuna, Bizkai eta Gipuzkoatik hara joan direnetarik datorrela. Baina, hauen influentzia ukatu gabe, benetan esan dezakegu, ikastolaren pisua Arabarren bizkarrek jaso* dutela, hizkuntza galdurik zutenen izerdi eta diruarekin.

Tafallako berri zehatzik ez dakit, baina berdintsu gertatu dela uste dut. Datorren ikastorako ba dakit Muskariarrek* ere ikastola berri bat zabaldu nahi dutela.

Logroñon ez ote dugu horrenbesteko posibilitaterik? Nik baietz uste dut. Baina gertatzen zaikuna zera da, ez dugula egiazko kontzientziarik, Errioxa gure herriaren zati bat dela.

Ikastola asko 15 hurrekin hasten zaizkigu. Ez ote da posible, Logroño bezalako hiri haundi batean horrenbeste haurrik biltzea? Bai, jaunak, bai!

Errioxarrak, zeuek zarate dei honi erantzun behar diuzuenak. Geure laguntza eta adiskidetasuna ez dautzuegu ukatuko.

ERRAMUN GERRIKAGOITIA

Tolosa

Iragan da ikasleen gurasoek eraturiko astea. Erabili diren gaietatik gehientsuak edukazioari buruzkoak izan dira. Gure herriak edo, hobeki esan, herrikook dugun makina bat problema ikusi ahal izan dugu. Ezbeharrak agerian jartzea ongi dago. Hoik* soluzionatzeko, ordea, zer egiten dugu?

San Ageda egunaren bezperan kalera atera ziren mutiko taldeak, haren ohorez kanta zaharrak berrituz.

Ikastolari diruz laguntzeko, jaialdi polita egin da. Parte hartu dutenen artean, «Oskarbi», Xabier Lete eta Benito Lertxundi aipagarrienak.

Gazteriak aurten ihauterietan parte hartzea erabaki zuen, eta, alafede, festa bikainak izan dira. Festazaleen artean, J. Lope, Garikano, Urruzola, Bello eta beste asko ere ikusi ditugu.

Tolosa, egunetik egunera, Aurrezki Kutxa eta Bankuetxez betetzen ari zaikunik ezin uka. Nonbait ere, ba da dirurik herri honetan. Gure zerbitzurako daudela diote, eta empletatu asko ez da herritarra. Euskaraz ez dakitenetatik ere ikusi ditugu. Gure diruak ere kanpotarrek maneiatzen dituztelarik, ez dugu berehalakoan etxea gobernatzen ikasiko, ez modu horretan, alajaina!

IRAETA



I. HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartxo batekin agertzen diren berbak

- ADIN, edade.
 ADREILU, **laçrillo**, brique.
 AGIRI, **documento**.
 AHANTZ, ahantzi, ahanztu (**potentzialetan**).
 AHUL, makal.
 AHULEZIA, makaltasun.
 AIPATU, aipatutako, aipaturiko.
 AIPATZEKE, aipatu gabe.
 AITZITIK, **al contrario**.
 ALABAINA, **en efecto**, en effet.
 ALDERA, alderatu, konparatu (**potentzialetan**).
 ALDERANTZIZ, **al revés**.
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.
 ALEGIA, **a saber, es decir, esto es**.
 ALOR, arlo, sail.
 AMILTEGI, **precipicio**.
 ANTZA, antza danez, **al parecer, por lo visto**.
 ARAUERA, **según, conforme**.
 ARDIETSI, erdietsi, lortu.
 ARE, oraindik, **aún**, encore.
 AREAGO, oraindik gehiago.
 ARIKETA, ihardunketa.
 ARITU, ari izan, ihardun.
 ARRAULTZA, arrautza.
 ARRUNT, **corriente, ordinario**.
 AURRERITZI, **prejuzgar**.
 BAITAN, -gan.
 BAKAN, **raro**.
 BARATZAIN, **jardinero, hortelano**.
 BARRUTI, **jurisdicción**.
 BEDEREN, gutienez, behinik behin, behintzat.
 BEHINGOAN, berehala.
 BEREAIN, **independiente**.
 BEREKOIKERIA, **egoismo**.
 BETA, asti.
 BEZAINBAT, beste, haina.
 BIDE, antza, nonbait, agian.
 BIHUR, bihurtu (**potentzialetan**).
 BILAKATU, bihurtu.
 BILDU, batu.
 BILDUMA, **colección**.
 BILERA, bilkura, **concentración, encuentro**.
 BULEGO, **oficina, bureau**.
 BURURATU, burura etorri.
 DATZA, **yace, consiste**. (Etzan aditzaren forma).
 DENDA, saltoki.
 DERITZE, erizten zaie, deitzen zaie.
 DIRATEKE, dira nonbait.
 DIRAUTE, irauten dute.
 DITUZKEZU, dituzu nonbait.
 DOHAIN, dohai, **don**.
 DUKEGU, dugu nonbait.
 EHIZTARI, ihiztari, **cazador, chasseur**.
 EI, omen.
 ENTELEGATU, ulertu.
 ERABAT, **incondicionalmente, irremisiblemente, totalmente**.
 ERABATEKO, **completo, total, incondicional**.
 EROR, erori, jausi (**potentzialetan**).
 ERORI, jausi.
 ERREMATA, **subasta**, vente aux enchères.
 ERRESUMA, erreinu.
 ERTZ, hegi.
 ESATERAKO, esate baterako, adibidez.
 ESKUALDE, **comarca**.
 EUSKARRI, **apoyo, sostén**.
 FUNTS, **fondo, substancia**.
 GASTEIZ, **Vitoria**.
 GELDI, gelditu (**sujuntiboetan**).
 GISA, legez, bezala.
 GIZABAKOITZ, **individuo**.
 GIZARTELOGIKO, soziologiko.
 GURA, nahi, gogo.
 GURARI, nahi, gogo.
 GUTUN, eskutitz, karta.
 HARRESI, **muralla**.
 HAU, honek. (**Hau** aktibo, **hauk** pasibo).
 HEIN, **media, grado, proporción**.
 HEZI, **educar**.
 HEZIKETA, **educación**.
 HIRI, huri, **ciudad**.
 HOIK, horreek. (**Hoiek** aktibo, **hoik** pasibo).
 HOTS, **a saber, es decir, esto es**.
 HURA, ha.
 HURBIL, **cercano, próximo**.
 IGERTOKI, **piscina**.
 IKASLEGO, **estudiantado**.
 IKUSTEN BAHU, ikusiko bahu, ikusiko baheu.
 IRAGAN, igaro, pasatu.
 IRAULTZA, **revolución, transformación**.
 IRAULTZAILE, **revolucionario, transformador**.
 IRITXI, heldu, ailegatu.
 IRTEERA, urteera, jalgitze.
 ITAUNKARI, **cuestión, problema**.
 JARRERA, jarpen, **postura, actitud**.
 JASO, altxatu.
 JAZARGO, **contradicción**.
 JAZO, gertatu.
 KONPROMETATU, engaiatu, **s'engager**.
 LABORANTZA, labrantza.
 LANDA, kanpo, **fuera**.
 LARUNBAT, zapatu.
 LEKUKO, testigu.
 LELO, **cantimela, estribillo**, ritournelle, refrain.
 LOR, lortu, erdietsi (**sujuntiboetan**).
 MENDE, **siglo**.
 MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente**.
 MIRETSI, **admirar**.
 MUSKARIA, **Tudela**.
 MUSTIO, beruin, **mosto**, moût.
 NABARI, **evidente, notorio, patente**.
 NABARITU, **percibir, sentir**.
 NAGUSIGO, nagusitasun.
 NOSKI, naski, **ciertamente, claro está, desde luego**.
 OHI, ohitu, (**sujuntiboetan**).
 OIHARTZUN, **eco**.
 OMEN, ei.
 ONURA, **provecho, ventaja**.
 ORO, guzti.
 ORO HAR, guztia harturik, **en conjunto**.
 OTSAIL, **febrero**.
 POZARREN, pozik.
 SAIAERA, **ensayo, essai**.
 SALMENTA, salketa, **venta**.
 SOBERA, gehiegi, larregi.
 SOLAS, **conversación**.
 SOLO, soro.
 SORKARI, **creación, cosa creada**.
 TANKERA, **estilo**.
 TELEBEHATZAILE, **telespectador**.
 TELEGUNKARI, **telediario**.
 UDAL, **municipio**.
 UDALETXE, herriko etxe.
 UHIN, olatu, **ola**, vague.
 UNADA, bolada, denboraldi.
 URDURI, artega, kexu.
 URRATS, pauso.
 URTARRIL, **enero**, janvier.
 XEDE, helburu, asmo, **fin, objetivo**.
 XUME, tipi, txiki.
 ZENBAIT, batzuk.
 ZEREN (ETA), ze, **pues**.

II. EUSKARA BATUA

GALDEAK ETA ERANTZUNAK (2)

—Aspaldion, aditz forma batzuei azentu ortografiko bat jartzen diezue. Adibidez, atzo etorri zèn gizona. Zertarako da azentu hori?

—Azentu hori, fraseari argitasuna emateko da. Esate baterako, zuk aipatu duzun frasea (**atzo etorri zen gizona**), berez, bi modutara uler daiteke: **atzo etorritako gizona** eta **gizona atzo etorri zen**. Hau da, batzuetan aditza erlatiboa da, beste batzuetan ez.

Zenbait* kasutan, ez beti, zail xamar izaten da, berehalaxe bederen,* noiz den erlatiboa eta noiz ez den jakitea. Kasu hoietan, ANAITASUNAn azentu grabe bat ezartzen diogu aditz erlatiboari, eta horrela frasea oso argi geratzen da.

Ez pentsa, hala ere, idazkera hau berrikeria bat denik. Azkuek berak, azentuaren ordez, marratto bat jartzen zuen erlatiboaren eta hurrengo berbaren artean. Adibidez, **atzo etorri-zen gizona**. Dena dela, markaren bat jarzteari beharrezko deritzagu.

Hona hemen bi esenplu:

Leku askotan ibili ondoren, gure etxera sartu ziren lapurrak, testiguen esan zuten, oso gazteak ziren.

Ekonomistek dioskutenez, Bilboko industriak XIX. mendean hartu zuen indarra, oztupo guztiak gairidurik, Bizkaiko bazter guztietara zabaldu da.



ARABAKO ERRIOXA (3)

Biaisteri

81,441 km². eta 1.696 bizilagun. Eskualde* honen hiriburua, agiri* zaharretan «La Guardia de Navarra» deitua, hain zuzen ere Nafarroaren ateak gordetzen zituala: ko. Haren barrutian* herrixka bi dagoz, Paganos eta Laserna izenekoak. Harresiz* inguratua eta tontor batean jarria, urrunetik ikusten da, eta bai benetan dala eskualdearen buru. Bi eliza ditu; bata Erregeen Andre Mariarena, X. mendean* eraikitzen hasia, tankera* gotikozkoa (lehen esan genduan bezala), eta XVIII. mendean* berriztatua; eta bestea San Joan Bataiatzailearena. Folklore arloan, Biaisterik dantza bereziak ditu; honeen artean Kaximorro izenekoak da entzutetsuena, San Joan bezperan herriko ikurrinarekin egiten dana. Industri pixka bat ere ba dauka: ogitegi bi, harrobi bat, zeramikagintzarako lan-tegi bat, eta ardogintzarako bi, bata «Bodegas Palacio», mustio* entzutetsua egiten dauana, eta «Rojas y Cía.», Savin ardoa egiten dauana.

Salinillas de Buradón

11,350 km². eta 108 bizilagun. Orain berrogei urte, 487 bizilagun zituan; eta orain hamar urte, 275. Buradon izeneko mendiaren ondoan dagoelako daroa izen hori. Inoiz herri honen izena euskaratzekotan, Buradongo Gatzaga edo eroan beharko leuke. Herri honek ere ba ditu oraindik harresi zati batzuk, eta dorre ate batetik sartzen da bertara. Katalan ume batzuk etortzen dira, uda pasatzera. Hemengoek ez dakie, Buradon non dagoen ere. Herritto hau bide nagusitik oso hurbil* dago, eta han ba dauka taberna bat, ia Ebro hibaiaren ertzean.* Ebro eta bide ondora jaitsiko balitz, etorkizun hobea eukiko leuke.

Bastida

27,137 km². eta 1.059 bizilagun. Herri honek, orain hamar urte, 928 bizilagun zituan; beraz, apurtxo bat gora egin dau. Nafarroako erregeek fundatu eben, Bastida izena jarritz, erresumaren* mugan egoelako, iparraldean, Nafarroa Beherearen goiko mugan beste Bastida bat dagoen antzera. Lehen, fraile frantziskanoek komentu bat euken hemen, eta hain zuzen ere Muga izena eban. Ez dago garrantziko industriarik, baina bai turismo nahikoa. Bizkai eta Gipuzkoa aldetik jende asko joaten da bertara; eta horretarako ba ditu herri honek txalet politikak, igertoki* eta abar. Euskara aspaldian galdua bada ere, bai hemen eta bai eskualdeko beste herrietan ere toponimi lan batzuk egingo bagenduz, laster agertuko litzateke aspitik gure hizkuntza. Behin batean herri honetan gengozeia, bertako udaletxe* ederreko atarian etxe baten eta haren soloen* erremata* irakurri genduan: eta hara zeintzuk izen agertzen ziren: Atxalde, Legutxa, Iskorta, Mondiate, Maranalde, Marralde. Eta gero gure aldeko euskaldunen batek solo horretan txaleten bat egiten badau, «Toki Polita» edo jarriko dautso izena, bertako euskal toponimia zaharra jarri beharrean.

Samainego

10,812 km². eta 274 bizilagun. Ardo herria, Biaisterirako bidean, bertan jarri berria da, aurreragokoan aipatu genduan «Coviria» edo «Cooperativa Vinícola de la Rioja Alavesa», eskualdeko ardoak landu eta tipifikatzeko. Samainego eta Bastidaren artean, Abalos eta San Vicente de la Sonsierra aurkitzen dira, lehen Arabakoak eta gaur Logroñoakoak direnak.

Villabuena

8,556 km². eta 364 bizilagun. Lehen, herri honen izena Villa Eskuerna zan. Bizkar baten behe aldean dago, Samainego, Zieko eta Baños-en bitartean. Beherantz doan herritto hau, ardotik bizi da gehienbat.

Baños de Ebro

9,387 km². eta 372 bizilagun. Ebro hibaitik oso hurbil,* horregatik daroa orain izen hori; lehen, Baños bakarrik deitzen zan. Herri honen euskal izenik ez da ezagutzen; beharbada euskara galdua egoen, herria sortu zanean. Ardo herri hau ere, besteen antzera.

Leza

9,731 km². eta 250 bizilagun. Tuberkulosi gaixoa dabenezako sanatorioagatik ezagutzen da batez ere herri hau. Toki ederra eta haize ona dauka horretarako. Herri honen izena euskarazkoa danik ezin geinke uka.

Nabarida

9,050 km². eta 259 bizilagun. Lehen Nabarida bi ziren, bata Goikoa eta bestea Behekoa, «de Suso y de Yuso»; eta horregatik, gaur herri bat izan arren, pluraleko s letrarekin agertzen da. Leza eta Zieko bitartean aurkitzen da. Baserri herria, besteen tankerakoa.

J. L. LIZUNDIA

dagoz, **daude**
daroa, **darama**
egoen, **zegoen**

eban, **zuen**
euken, **zedukaten**, zeukaten
geinke, **genezake**
gengozen, **geunden**

«Goiznabar», Aita Onaindiaren liburu berria

Aita Onaindia, Zornotzan bizi dan karmelitarak, 242 orrialdetan 149 poema argitara eman ditu, Bilboko «Gráficas Bilbao» etxearen bidez. Poema horreek jainkozkoak, aberrikoiak, gudu aldikoak, eta abar dira.

Maite Idirin kantariaren ihardunaldiak

Maite Idirin han eta hemen kantatzen ari da Frantzian. Hilabete honetan, martxoan, Pariseko «Cité Internationale Universitaire» dalakoan, Boulogne herrian eta Fresnesko «Maison des Jeunes et de la Culture» etxean ihardungo dau.

Literatur sariketa Lexonan

Lexonako «Itxasalde» taldeak, Udalaren diru laguntzaz, Ipuin eta Saiaera* Sariketa bat antolatu dau. Ipuinek itsasoa euki behar dabe gaitzat, eta saioek Lexonan Unibertsidadea jartzeak ekarri leikezan onura* eta kalteak. Lan honek euskaraz nahiz erdaraz izan leitekez. Ipuinetan 2.000 pezetako saria izango da, eta saioetan 3.000 pezetakoa. Lanak presentatzeko epea hilabete honen 19an bukatzen da, eta lan sarituak antolatzaileen esku geldituko dira.

Juanjo Munduate hil da

Juanjo Munduate, Basauriko txistulari eta herri ekin-tzaile jatorra hil da, oraindik mende* laurden bete berri ebalarik.